

OSASUNA ETA BURUJABETZA: HERRI KOOPERATIBA BATEN ALDE

(manifestu-proposamen baterako zirriborroa)

Covid19aren inguruan sortutako agertoki pandemikoa, besteak beste, osasunaren pribatizazio prozesu guztiak bizkortzeko eta, era berean, osasunaren merkantilizazioarako estrategia global bat sendotzeko erabili da, azken hamarkadan gure herrian bidea irekitzen ari zena. Txertoak, antsiolitikoak (Espainia da jada munduko lehen kontsumitzailea), bizitzaren medikalizazioa (15 urtetik gorako biztanleriaren % 64k du diagnostikatuta gaixotasun kronikoren bat medikazioarekin), gehiegizko proba diagnostikoak, beharrezkoak ez diren ebakuntzak eta indarkeria obstetrikorearen kasu amaigabe bat. Aldi berean, azken 5 urteetan, biztanleriaren osasunaren narriadura globala gertatu da (egoera horretaz ohartarazi zuen jada, 2023ko txosten batekin, Espainiako Bankuak, batez ere etorkizuneko lan produktibitatearen jaitsieran izan dezakeen eraginagatik).

Energiaren, komunikazioaren edo hezkuntzaren alorretan gertatu den moduan, osasunaren eremuko KOOPERATIBA bat beharrezkoa dela iruditzen zaigu, ideologia kapitalistatik kanpo, elkartasunean eta zintzotasunean oinarrituta. Gure ustez, proiektu hori eratzeke, prozesu partehartzaile bat eman beharko litzateke. Bertan hiru urrats aurreikusten ditugu:

1) Oinarri Teorikoak: osasunaren paradigma berri bat ezartzea (zer ulertzen dugun osasunaz, nola irudikatu behar dugun osasun-arreta eta nola irudikatuko genukeen osasun-sistema bat etekinak eta interesak kanpo utziko lituzkeena).

2) Prozesu eratzailea: ekarpen-prozesu bat abian jartzea, parte-hartzaileen kezkak, nahiak eta ezagutzak partekatzeke, osasun-hezkuntza berri bat eta arreta medikoko eredu berri bat eraikitzeke orduan.

3) Kooperatiba sortzea: oinarriak eta ikuspuntuak behin finkaturik, osasun kooperatiba bera sortzea, izan ohi diren neurri legal eta ekonomikoak betez.

Argi daukagu zer EZ dugun nahi: ez dugu nahi osasun zerbitzu bat (ez publikoa ez pribatua) non industria farmazeutikoak (BIG FARMA), mutualitateek eta aseguru etxeek osasun sistema ustel eta merkantilista bat kontrolatuko duten. Ez dugu nahi sistema bat, jaiotzetik heriotzara arte bezero gisa hartzen gaituena, eta haren eremu guztiak (politiken diseinua, prestakuntza eta ikerkuntza zientifikoa) kontrolatuta eta arreta mediko mota jakin baterantz (sistema farmako-zentrista) bideratuta daudena. Ez dugu nahi osasuna eta gaixotasuna ulertzeko beste ezein moduri zirrikiturik uzten ez dion osasun-sistema bat.

Edonola ere, aipatzen ari garen osasun kooperatiban parte hartzeak irekia izan beharko luke oinarrizko baloreekin bat egiten dutenentzat; bai Osakidetza edo Osasunbidean lan egiten dutenentzat, bai pribatuan ari direnentzat. Horrela, mediku, psikologo, erizain, fisioterapeuta edo beste osasun langile batengana joan behar dugunean, kooperatibako langileekin ere erreferentzia bat izan ahal izango dugu, lagunduko diguna eta harekin kidesasuna izango duguna.

Osasunaren eremurako herri-erreferentzia berri bat behar dugu kontraboterearen terminoetan ulertuta, egungo paradigma kapitalistaren aurrean osasun paradigma berri bat indartuko duena eta sare aktibista komunitario bat sortzeko gaitasuna izango duena. Aurrean daukagun distopiatik urrundu eta nahi dugun utopiara jo behar dugu.